DOHAN ZEURE ETXERAKO

1990ko Uztaila/18 Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

...eta kitto!

"EGO IBARRA"

Geureaz ohartzeko

Hori da, azken finean, Euskara Batzordearen inguruan sortutako lan talde honen eginkizun nagusienetariko bat. Eibarko memoria historikoa jaso ondoren, ezagutzera ematea helburutzat harturik, iazko Apirilatik hona ihardun dira zenbait herritar: guztiak hango eta hemengo ereferentzien bila. Aurten, instituzionalki Udalak ideia onartzeaz gain lehenengo argitarapen edo publikazioak izango ditugu gure eskuartean, Urrirako seguruenik. Dena den, lan hau hemen ez dela amaitzen kontutan izanik, dei berezia zabaltzen zaie eibartarrei, guztioi interesatzen zaigun enpresa honetan parte har dezagun, hain zuzen.

Aintzinakoak gara, ez pentsa. Gu baino lehen, belaunaldiz belaunaldi, izan dira beste modu batera pasatutako denborak; guztiak ez bait dira berdinak izaten. Baina oso gutxi dakigu horretaz eta, benetan, lastimagarria da gure sustraietaz hain deskonektatuak egotea. Nola konpondu, orduan, desoreka hau? Honetaz ohartuta, lanari ekinez. Jendearen kolaborazioaz eta instituzioaren laguntzaz baliaturik, Ego-Ibarra taldeak bete behar duen eginkizuna.

•Antolaketa

Hiru Batzorde ari dira lanean, bakoitza plano batean. Alde batetik, Batzorde Instituzionala, Kulturako kontzejalak, alkatesak eta hiru teknikok -Kultura Sailekoa, Euskera Zerbitzukoa eta udal itzultzaileaosatzen dutena.

Bestalde, Batzorde Aholkularia, irekia, non proposamenak egiten diren. Hemen lanak behar duen plangintza ematen da: egitarauari dagozkion bideak mahai gainean azaltzen dira, jarraitu behar diren pausuak erabakitzen, puntuak definitu eta abar; hitz baten esateko, aholkuak eman eta jasotzeko komisioa da.

Azkenik, Lan Batzordea, irekia hau ere, Batzorde Instituzionalak erabakitakoa mamitzen saiatzen dena. San Juanak ostean bilduko zaigu berriro, orain arte izandako hirugarren batzarrean.

•Lana

Iazko Urrian, eztabaidatutako beste zenbait puntu batzuren artean, lanen lehenbiziko banaketa egin zenetik honaino, bete behar dituen pausuak zehazteaz gain proiektuak bere martxa badarama, zenbait puntutan:

-Toponimia. Luis Mari Mujikak utzitako amillanamenduetatik ateratako Eibarko auzo, bailada, mendi tontor, baserri, erreten eta erreken izen bilduma kontrastatzeko lan honetan planoak dira nagusi. Dena den, toponimia nagusia da batuko dena, S. Martinen idatziak eta 1858ko "Nomenclator"ra bibliografia modura harturik. Toponimia txikia "banco de datos" baten sartuko da.



-Gaitzizenak. Ia bukatzear. 1000 inguru batuak eta ehun bat esplikaziorekin.

-Esamoldeak. Atal honetan Toribio Etxeberriak dauzkan mailegu-hitzen bilduma egiteaz gain, Toribiok berak eta San Martinek dauzkaten idazlanetan atsotitzak edota esamoldeak atera beharko lirateke.

-Efemerideak. Lehenengo ohiturak eta usadioak barne. Toribio, San Martin eta Zelaiaren lanak kontuan harturik.

-Eibartarrez idatzitako gauzen antologia. Honako egile hauek idatzitakoarena: Antonio Iturriotz, Mogel, T. Etxeberria, J. San Martin, Eibarko Ordenantza munizipalak, sermoiak.

-Liburuak. Garrantzi handiena sekula argitaratu gabekoei eman behar zaie, publikatutakoak salbatuta bait daude.

-Sanjuan jaietako programa. Programa berezi bat atera beharko litzateke, aspaldi egiten zen bezala; "Diana" eta "Eguren" inprimategiak ateratzen zutena, Udaleko artxiboan gaur egun, jaso eta gordeak.

-Eibarko kantuak. "Zirikadak" liburuan azaltzen direnak jaso. Beste batzu: "Itxaso"ren bertsoak, "Orbe"renak. Aurrekoarekin lotuta, jende nagusiak dakizkien kanta zaharrak jasotzerako orduan, Sostoa taldearen laguntza beharrezkoa ikusten da. Haurren kantak, ipuinak eta jolasak ere badute bere garrantzia.

Helburuak. Aurtengo emaitzak

1990an, Udalaren onartzearekin batera, lehenengo argitarapenak izango ditugu 2 milioiko aurrekontuak ematen dituen ahalmenei esker. Hiru dira kaleratzeko zain dauden publikazioak: irailean edo urrian gutxi gora-behera, Aian irakaslea den Jose Manuel Unanueren lan, "Eibarko idazleak eta idazlanak", non herriko guztiak azalduko diren, heuren lan eta publikazioen erreferentziaz. Tirada 500 alekoa izango da, faksimili gisa. Eibarri buruzko lanen erreferentzia honen banaketa ikastetxe, elkarte, kolektibo, liburutegi eta beste zenbaiten kultura arloko taldeen artean izango da.

"Eibarko Euskeraren Antologia" ere publikatzekotan da. Liburu honetan eibarreraz idazle klasikoaren lan zatiak argitaratzen dira. Honen helburua euskaldun berri eta gazteentzat euskera standarra aberasteaz aparte, kontsultatzeko orduan erreferentzi gisa erabiltzea litzateke, ikerketa lanetan murgiltzean batez ere.

Amaitzeko "koaderno" eran, gai monografikoei buruz argitaratu behar direnen lehena, "Eibarko gaitzizenak", Unibertsitate Laboralean klaseak ematen dituen Antxon Narbaizarena.

Horrez gain, Toribio Etxeberriaren "Ibiltarixanak" eta "Viaje por el País de los Recuerdos" Aurrezki Kutxen laguntzaz argitaratuko dira.

•Eritziak

Batzorde Instituzionalean partaide den Eibarko alkatesak hasieratik onartu zuen ideia, oso "majoa" iruditu bait zitzaion. Aurora Baskaranek esaten duenez Alkatetzaren partehartzea segidan estudiatu zen eta, horretarako, Toribio Etxeberriaren Mendehurrenean lan eginiko jendeekin harremanetan jarri zen. Diputazio aldetik ere jaso zen konpromezu bat, argitaratzeko mementuan laguntza izango zela ziotena.

"Gure historia interesantea da oso eta beste batzurentzat ere argitasuna eskeini diezaioke"la dio. "Ez dugu ahaztu behar hemen proklamatu zela Bigarren Errepublida; puntu honetan ados nago Unanuek proposaturiko festa honen ospakizunekin, ohitura bat bihurtuz. Bestalde, gure herriko hileta zibilaren historia orain arte ez da tratatu eta gustatuko litzaidake lantzea, batez ere nire aittitta apaiz laikoa izan zelako."

Euskera Zerbitzuko teknikoa den F. Muniozgurenek, bere aldetik, betebehar honen garrantzia azpimarratzerakoan lanen interesa honako puntu hauetan kokatzen du: oinarrizko erreferentzia historikoa, aurreko eta geroko erreferentzi hau, hiperinformazioak dakarren desorekaz gal ez dadin; publikazioen eragina, eibartarron idiosinkrasia alimentatzeko; Eibarrek daukan ondare edo patrimonioa, memoria kulturalen bidez jaso, honen jabe direnek desagertzen doazela ahaztu gabe. "Liburutegian stand bat eskeiniko zaio honen inguruan egiten den guztiari, eibartarren gozamenerako. Errepikatzea bada ere, esan behar dudana da programa eta batzordeak irekiak direla. Horregatik, edozein sujerentzia, proposamen, kritika edota komentariori irekiak gaude. Eta argitaratu gabeko kantu, aldizkari edo liburuak jasotzeko prest, Eibarko patrimonioa delako".

...eta gainera...

2. Orrialdea: **Harrerako familiak" Programa**

3. Orrialdea: **Udak dakarrena: begirale lana**

4/5. Orrialdea: **Eibar Moto, Peña pelotazale**

6. Orrialdea. **Ane Sarasketarekin elkarrizketa**

7. Orrialdea: **Don Pedro Celaya: 1949tik abade**


8. Orrialdea: **Morenatzea: Udako kezka**

BULEGO MATERIALAK ETA ALTZARIAK
KOMERTZIALA
ETESA
Bidebarrieta, 66 - Post. Kutxa 428 - Tlfnoa. (943) 12 19 73 / 74 - Faxa: (943) 12 70 68
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

FIAT
EIBAR HOGEI, S.A.
Bittor Sarasketa, 7 12 10 00
12 10 19

"Harrerako familiak" programa

Etxebizitza eta baliabide ekonomiko ezagatik, familia arazoengatik, edo bakardadeagatik familia girorik eduki ez dezakeen zaharraren arazoa konpondu nahi duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuaren programa bat da



NORTZUK ESKA DEZAKETE "HARRERARAKO FAMILIA"

Elkarrekin bizitzeko, esperientziak eta bizipenak trukatzeko gogoa, denbora eta osasuntsu izatea eta harreman berri bat lantzeko interesa edukitzea dira oinarrizko osagarriak familia harrera bati hasiera emateko.

Jarrera hau dutelarik, hiritan edo komunikazio agokirik duten eta hurbil-errazak diren landa-ingurutan nahikoa osasun eta higiene garantiekin, erabilpen esklusiborako gela bat eskain dezaketen pertsona, familia edo bikote guztiak izan daitezke "Harrerarako Familiak".

Gainera, finantz egoera ez da erabakiorra, Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuak kostu ekonomikoak dirulaguntza bidez konpontzen bait ditu.

NORTZUK ESKA DEZAKETE "HARRERARAKO FAMILIA"

Eskabideak, Gipuzkoan jaiotako edo bertan erroldatutako 60 urte baino gehiagoko pertsonek egin ditzateke. Ez du garrantzirik egoera zibilak, dirusarrera mailak, edo eta "Harrerarako Familia" bat eskatzeko izan dizaketen arrazoiak.

Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentua familia, inguru egokia aurkitzen saiatuko da eta gainera zaharrari bere baliabideen araberako laguntza indibiduala eskainiko dio, harreraren gastuak ordaintzeko.

Zaharrari ez zaio proposatutako "Harrerarako Familia" onartzera behartuko, guztiz atsegina iruditzen ez bazaio.

ESKABIDEAK BIDERATZEKO MODUA.

Pertsona heldu gisa familia inguru bat bilatzen baduzu, edo "Harrerarako Familia" gisa garatzeko prest bazaude, eska ezazu informazio gehiago zure Udalean, Gizarte Ongizate sailean, astelehena eta ostiralean 11tatik 13tera.

IRAKURLEAREN TXOKOA

"Eta kitto" aldizkarian argitara emateko:


Eibartarren batek kalean "Abankargo Aintzina Arma Euskadiko II. Txapelketa", pelikuletan, marjinalitateari ateak irekiz indioen ahotan jartzen den hizkuntza itxurako kartel xelebre hori irakurriko balu, mesede hau eskatuko nioke: ez nazala katramila horretan sar eta gaiari hain ondo datorkion erdal "al maestro armero" horri eska diezaiola tamainako astakeri horren erantzukizuna. Txarra naiz baina ez hainbesteraino. Euskara gehiegirik ere ez dakit, baina ez horrelakoak idazteraino. Esaldiren bati egunen baten kendu izan diot aditz laguntzaileren bat edo beste baina oraingoz ez naiz hasi deklinabidearen -ko -ren eta sendikoak jaten, Mafaldak bezala, nik ere hizkiak ez ditudalako sopatan maite.

Begoña Azpiri

ERREDAKZIOAREN OHARRA

«**...Eta Kitto**»ren erredakzio taldekoak, irakurlearen txokoa sekzioa mantentzearen alde agertzen bagara ere, zuen kolaborazioa beharrezkoa dugu. Horretarako animatzen zaituztegu nahi duzuenaren gainean idatz dezazuen.

SARIKETA



Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia?. Beno hori hala bada eta IKUSONIKek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez?

EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
"... eta Kitto Sariketa".

17. Aleko sariketaren erantzuna: "Jardiñeta/Muzategi kalean dago" zen. SARITUA: ANA Mª MITXELENA And. Jardiñeta kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Uztailaren 15erako bidali behar dira erantzunak.

IKUSONIK — **DISKA SALDUENAK**

EUSKARAZ

1. EGAN. "Erromeria"
2. AKELARRE. "7/90"
3. XABIER ETA PETER. "Funtzioa"
4. HERTZAINAK. "Amets prefabrikatuak"
5. GANBAR. "Ganbaratik".

BESTELAKOAK

1. JOAQUIN SABINA. "Mentiras piadosas"
2. MADONNA. In breath less
3. EL ULTIMO DE LA FILA. "Nuevo pequeño catálogo..."
4. BIG FUN. "A Pocketful of dreams"
5. JOOE COOKER. "Live"

O.H.O.ko GAZTEOK

90ko UZTAILA

OPORRAK AFARIKETAN

Haurren oporrei begira Eibarko OHOko Guraso Elkarteek, Udaleko Euskara Batzorde eta Gipuzkoako Foru Diputazioaren laguntzaz herriko eskolumeentzat "Udaleku Irekien" antolatu ditu. Triptikoa eta propaganda A.K.M.aren laguntzaz atera dira.

Eredu eta eskola guztietako OHOko haurren, bakoitzak duen hizkuntz gaitasuna errespetatuz, euskararen ulermen gaitasuna eta erabilpena bultzatzea eta Uztailean Eibarren gelditzen diren haurrei, beraien opor garaia betetzeko aukera ludiko-kultural berri bat ematea izango lirateke kanpaina honen helburu nagusiak.

"Udaleku Ireki" hau Uztaileko bi hamabostalditan banaturik gauzatuko da: Lehenengo txanda, Uztaileko 2tik-13ra. Bigarren txanda, Uztaileko 16tik-27ra.

Aurten 500 ume inguru apuntatu dira. 1. txandan: 30 talde eta 2.ean : 11 talde daudelarik.

Talde bakoitza 15 umez osatuta dago eta talde hauek eratzerakoan ohizko kriterioak erabiltzen dira: euskara eta adina.

Programa hau garatzeko Urkizu, V. de Arrate, La Salle ikas tetxeetako lokalak erabiliko dira, baita ere Polikiroldegiko igerilekuak eta Orbea Frontoia.

Hamabostaldi bakoitzean umeek honako aukera hau izango dute: Pizinetara joan, S. Salbadorera, Unbera, Txango berezia, jokoak eta eskulanak, azken jaialdia...



1990ko Uztaila / 18. Alea

Gazte gara Gazte

...eta kitto!

HARTZAREN KOBATIK

Idoloen bila

Egunero ikusten ditugu. Larruzko txupak, txima luze eta talde musikalen izenak erakusten dituzten kamisetak dira bere adierazgarri. Gazte talde batenganako pertenentzia argi uzten du euren jazkerak. Batzuk, "heavyak". Besteak, "Punkkyak". Hurrengoak "Rockerrak", eta abar luze bat osatu arte.

Talde edo tribu hauen partaideentzat, musika baino gehiago da. Baita ere, bizitzaren aurreko jarrera bat. Bizitzeko era bat, jazteko modu bat, kontsumitzeko joera bat. Talde hauen barruan murgiltzen denak, erreferentzi argi bat du bere bizitzarako: bere idoloena.

Gehienetan, rock musikariak izaten dira. Beren kantetan, taldearen arteko batasuna goraipatzen da, eta modelo bezala jartzen dira asko: gehien ligatzen dutenak, edota "autentikoenak", edo parrandista izugarriak. Hainbat gaztek, imitatzeko moduko modelo bezala hartzen dituzte.

Hau ez da berria. Idoloak beti izan dute eragina gizartearengan. Garai batean, mutiko guztiak Humpfrey Bogarten antzeko gabardina bat izan nahi zuten, eta neska asko Lauren Bacallen orrrazkera jartzen zuten. Baina ez zen jazkeraren arlotik pasatzen. Gaur egun, ostera, filosofia oso bat da idoloengan mimetizatzen dena.

Prozesu hau ona edo kaltegarria den esatea ez da erraza. Alde batetik, gaur egungo gazteek ez dute eredu onegirik jasotzen gizartearen eskutik. Beraz, bere eredu propioak bilatu behar dituzte. Bestetik, ez dugu ahaztu behar roxk musikari hauek milioika dolar mugitzen dituen negozio baten parte direla. Horrela, bizitzeko era hori kontsumismo hutsa bihur daiteke, idolo hauek ez bait dute dohain lan egiten. Diru gorria ateratzen dute bere jarraitzaileen poltsikoetatik.

Orduan, talde hauen alde ala kontra? Ez bata eta ez bestea. Gazteak eskubide osoa dute nahi duten modeloa jarraitzeko, baina kontuz ibili behar dira herbestetik etorritako modeloengatik manipulatuak ez izateko. Azken finean, bizitzeko era bat ez da soilik mozorraturik ibiltzea, bestela, Jorge Negreteren jarraitzaileak mariatxi jantzita ibiliko ziren gure kaleetan barrena. Bizitzeko era bat aukeratu ezkero, erresponsabilitatez eta ikuspegi zabalez hartu behar da. Bestela, beste moda bat bihur daiteke.

Udak dakarrena: Begirale-lana

Hau ez da izango gramatika klase arrunt bat. Ziur gramatika klaseak gorrotatzen dituzten gaztetxoek eta ez hain gaztetxoek aditz berri hau menderatzen dutela, gustora gainera. Batzuk pentsatuko duzue, zertan dabil tipo hau? zertaz hitz egiten du? Ba aldebatetik UDALEKUETAZ eta bestealde Udaletxeko Euskera Zerbitzuak gaztetxoentzako antolatutako aktibitateetaz hauek BEGIRALE edo monitore batzuk gauzatze dituztelarik.



Umeak dibertsioan, begiraleak erne

Historia egiten badugu, epe laburrean baina historia, urte asko dira **Jesus Mari Herrietak** udalekuak sortu zituela. Gutako askok ezagutu izan ditugu gure gorputzean Beire, Abaigar, Bernedo, Antzin, Zudaire... baina urteak pasa ondoren aldaketak izan arren orain Goñi, Bernedo, Abaigar eta Urdiroz diraute. Hazia **Jesus Mari Herrietak** jarri zuen Euskal Udalekuak deitzen direnetan eta urteen zahar egokitze eta aldaketak medio direlarik udaleku hauetaz gain beste animazio moeta batzuk sortu izan dira, adibidez: udaletxeko euskera zerbitzuak antolatutako programazioa gaztetxoei zuzendua. Guzti honi buruz hitz egiteko **Ander Guisasola**rekin udalekuenaldetik eta udaletxeko begiraleak koordinatzen dituzten bost neskekin hitz egin dutgu bestalde. Zer dute amankomunean lehen aipaturiko udalekuek eta udaletxeak sortutako begirale taldeak? Euskera eta gaztetxo eta haurren dibertsioa eta erabat beraien hezkuntzar gehigarri bat.

Udaletxeko begiraleak

Jaione, Maite, Ana, Esti eta Asun dira udaletxeak izendatu dituen pertsonak gaztetxoen aktibitate guztiak antolatzeko eta gauzatzeko. Bost neska hauek 9 hilabete diardute lanean koordinatzaile eta begirale bezela. Bost neska hauetako bat lehen ere bazegoen udaletxerako begirale bezela lan egiten baina badira bederatzi hilabete neska hauek elkarlanean daudela euskara zebitzuarekin bat eginik bere eguneroko lanaren bidez gaztetxoen denbora librea antolatzeko. Udaletxeko euskera zerbitzuak antolatutako ekintza hauek 6 urte dituzten haurrekin hasten dira eta 16 urteak dira ezarritako muga. Adin hoietaz gain badago kontutan izan behar den beste baldintza bat: Eibarren ikastea. Ekintza hauek Eibarko ikastetxe guztietara zuzenduak daude eta aktibitate guztiak euskara hutsez egiten dira.

Antolatzen dituzten ekintzak moeta askotakoak dira, alde batetik kurtsoan zehar klaseak bukatzen direnean, astelehenetik ostegunera bakoitzak bere ikastetxean posibilitatea du kirolak, eskulanak, jokuak eta beste aktibitate oso dibertigarri batzuk egiteko udaletxeko begiraleak gidari direlarik eta bestealde beraiek kanpainak deitzen dutena dago, kanpaina hauek gabonetan eta udaran izaten dira, prezioa oso merkea izaten da eta mendira, ondaratzara, patinetera eta abar... joateko posibilitatea dago. Benetan opor ezin hobeak igarotzeko aukera. 14 eta 16 urtekoentzat beste ekintza moeta ezberdin bat antolatu da. Gazte hauek urtean zehar asteburuko irteerak egin dituzte. Urte honetan egin izan dituzten irteerak baikortzat har daitezke eta adin hori nahiko berezia izan arren eta aurtengo esperientzia ona izan denez, etorkizunerako plangintza hori jarraitzeko asmoa dago.

Begirale gehienak ikasleak dira eta dirua irabazteaz gain badute beste motibazio bat: haurrak. Beraiek diotenez haurrek ongi pasatzen dute baina begiraleek ere momentu oso onak igarotzen dituzte gaztetxoekin. Nork daki zeinek pastzen duen hobeki. Begirale gehienek 20 urte inguru izan arren badago kasu bitxi bat, 30 urte pasatxo dituen emakume bat. Emakume honek **coral** du izena eta hasieran bere semea hasi zen bidaltzen eskursioetara eta orain, badira urteak berak bere oporrak erabiltzen dituela begirale bezela joateko.

Udalekuak

Gutako askok ezagutu izan ditugu **Jesus Mari Harrietak** sortutako udalekuak. Urteak pasa dira eta **Jesus Mari Harrieta** pixkanaka udalekuen koordinaketa beste batzuen eskuetan uzten joan da. Hau **Ander Guisasolaren** kasua da, **Ander** txikitan udalekuetara joaten zen, gero begirale bezela eta orain beste bi kiderekin Goñiko koordinatzailea da.

Anderek esaten didanez "udalekuetan ez da aldaketa handiegirik eman eta jendearen erantzuna oso ona izaten da urtero, gaztetxo asko tokirik gabe gelditzen direlarik. Nik nere garaian ezagutu nituen txabolak, altxorraren bila, olinpiadak... oraindik jarraitzen dute baina jakina garai hontara egokituak".

Elkarrizketaren zehar **Ander**rek esaten dit nahiz eta han inork ez kobratu, denon lana borondatezkoa izan, udaleku horien funtzionamendua beti horrela izan dela eta urteek aitortzen dute funtzionamendua ona izan dela. Udaleku hauetan (Abaigar, Bernedo, Goñi, Urdiroz) ez dago luxu handirik, hauerrek ez dute Wind-surf-ik egiten, piraguismorik ere ez baina mendia beraiena da, txabolak bere kanpamenduak dira eta natura beraien bizia. Horrelako tokietan gauza txikiak handiak bilakatzen dira eta pozik jarri nau jakiteak ni joaten nintzenean bezelaxe, orain ere igandeetan edari gasdun botila bat egoten del talde bakoitzarentzat eta urrea balitz bezala balioztatzen da. Lehen bezalaxe orain ere taldeek izenak dituzte, ni joaten nintzenean izenak "sorginak"; "basajaun" izaten ziren orain berriz "Toy Dolls", "Txurrumuski" eta horrelako izen bitxiak jartzen dizkiete taldeei. Urteak pasa dira baina zentzua berdina da: Euskeraren garapena.

Bai Eibarren bai kanpoan Eibarko gaztetxoek posibilitatea dute euskeraz garatzeko eta gauza berriak ezagutzeko, ez ditzatela aukera hori galdu eta horrela gero, hori gehiago izango dute.

NOR-NORA/NON-NOIZ

NOR	NORA/NON	NOIZ
Naia	Eibarren.....	Urte guztian zehar
Aitor	Abaigarrera/en	
Miren	Bernedora/n	Udaran
Iker	Goñira/n	
Malen	Urdirozera/en	

Umee udako gramatika berria

MARGOLA
TINDATEGIA
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
Bista Eder, 6 Tfnoa: 11 12 49 EIBAR

bankoa
INTERES HANDIKO KONTU KORRENTEAK
ERRENTAGARRITASUN PAREGABEA
ZULOAGATARREN, 7 Tfnoa: 11 39 40



Gazte asko izena emanda baina praktikatzen gutxi

Eibarko "Peña Pelotazalea" pilotaren alde lanean

Orbea pilotalekua egoitza modura duen Eibarko "Peña Pelotazalea" 1974. urtean sortu zen, eta ordutik hona peña honetakoek lanean darraite pilotak dakarren guztiarekin, baina batez ere esku pilotarekin. Peña honek, pilota eskola bezala funtzionatzeaz gain hainbat lehiaketa antolatzen ditu eta helburu nagusia, zalantzarik gabe, beraien baitan sentitzen duten zaletasun hori gaztetxoenei transmititzea da. Hala ere, hau ez da bat ere erraza, pilota sekulako krisialdian murgilduta aurkitzen da eta"

"Peña pelotazale"ko presidentea den Paco Fernandez, eta laguntzaile modura aritzen den Jose Antonio Telleria-rekin izandako elkarrizketan, hauek peña honetatik antolatzen diren ekintzen eta peñaren barne-antolaketaren berri eman digute. Alde batetik "San Andres" lehiaketa antolatzen dute herri mailan, hau 15 urte baino gutxiagoko gazteei zuzenduta dagoelarik. Bestalde, Eguberriko trofeoa eta baita Errege egunekoa ere bertatik prestatzen dute.

Peñaren barne-antolaketari dagokionez, badago 10 pertsonez osaturiko direktiba edo zuzendaritza bat, hemen presidente, bozeramale eta guzti aurki ditzakegularik. Sozio edo kideen kopuruari dagokionez 80 bat izango lirateke.

Lehen esan bezala, Peña honek eskola modura funtzionatzen du; astean zehar Paco eta Jose Antoniok 15 ordu ematen dituzte pilota irakasten. Eta piskatxo bat nabarmentzen direnak Astelenara bidaltzen dituzte, asteartetan pilotaleku honetan 2 ordu eginik. Hala ere, badirudi gaur egun ez dagoela nabarmentzen duen gazterik. Pacok adierazi digunez, "zerbait nabarmendu den azkena Intxaurrondo izan da, eta hortik aurrera asko jeitsi egin da". Bestetik, Deba Beheko, Deba Probintzialeko edo ta herri arteko lehiaketetan parte hartzen badute Astelena entrepesak pilotalekua uzten dietelako da; bestela ezin izango zuketen inolako konpetiziotan parte hartu. Hain zuzen, beraiek antolatzen dituzten lehiaketak 15 urte beherakoei zuzenduta daude, zeren adin horrekin oraindik Orbea pilotalekuan defendatu egiten dira. Hala ere, herritik kanpo jokatzen dutenean, gazte hauek benetazko arazoak izaten dituzte 2 metro gehiagoko zabalera duten pilotalekuekin aurkitzen bait dira. Arazo hau konpontzeko, edo behintzat leuntzeko, polikiroldegiko pilotalekura eramaten dituzte, baina Paco eta Jose Antoniok esankaoren arabera "pilotaleku hau azkarregia da eskuzko pilotarentzat. Izerdia egiteko oso ondo dago baina mutilek ez daukate astirik beren lekuan jartzeko".

Bestalde, pilotazale hauek aditzera eman zigutenez, "benetan penagarria da Eibarren zesta, pala edo remontea praktikatzeko pilotaleku handi bat ez izatea. Guda aurretik Eibarren 40 edo 50 "puntista" bazegoen ere, gaur egun pilotaleku eza dela eta, modalidade hau agorturik aurkitzen da.

Pilota jasaten ari den krisia

"Pela pelotazalean" jende gazte asko apuntatuta egon arren, oso jende gutxi joaten da. Paco Fernandez eta Jose Antonio Telleriak azaldu zigutenez, "pilotak bere unerik txarrena pairatzen ari da. Lehen, orain dela urte asko, batzuk ez geneukan lekurik ekipoan, posible bait zen 30 pilotarien artean aukeratzea. Orain, berriz, guztiz kontrakoa gertatzen ari da, eta sarritan bikote bat osatzeko direktibo batzuengana jo beharra daukagu".

"Peña pelotazalea"an 6 eta 7 urteko mutilekin lanean ari dira jo ta ke, kirol hau bultzatu nahian, edo berpizteko itxaropenarekin.

Baina mutilek 12 edo 13 urte edukitzean, futbolera edo eskubaloira jotzen dute; "kirol hauetan egun txar bat baldin badugu besteek jokatzen dute, baina pilotan batek bakarrik eman behar du aurpegia, kirol hau askoz ere sufrituagoa izanik", Paco eta Jose Antonioren ustetan. Honetaz gain, gazte askok pilota uzten dutenean beraien gurasoek ere, aitek kasu hőnetan, kirol honetatik urruntzen dira. Eta hau dela eta, "askotan Peñaren barruan 2 edo 3 kide besterik ez dira geratu", Peña pelotazaleko presidentea den Paco Fernandez-ek adierazi digunez.

Hala ere, pilota jasaten ariden krisialdia orokorra da, eta bai eztapen honen adibiderik argiena Azkoiti dugu. Tradizionalki pilotazalea izan den herri honetan polikiroldegia zabaldu dutenetik, umeek eskubaloira, nataziora... doaz, pilotalekua alde batetara utziz.

"Peña Pelotazaleak" aurre ikusten duen proiekturik hurbilena liga probintziala da, honek 8 hilabete iraungo duelarik. Liga hau aurten burutuko da lehenengo aldiz, eta 8 pilotarik osaturiko taldea eramango dute bertara, 4 kategoria ezberdinekin.

FIRIN FARAN

Bekak

Euskal literatur eta sorketa zientifikorako laguntzak, gaztelerazko lanen argitalpenaren bitartez. Deia Eusko Jaurlaritzak egiten du. Eskatzaileak Euskal-Herriko idazleak dira. Epea 1990-ko 15era arte da.

1990eko udan Alemanian ikasteko bekak. "Tamdem" kultur zentruak egiten du deia. Euskal-Herriosoko (Hego-Euskadi) interesatuentzat. Ikastaroa ordaintzeko gastuak izango da eskeinitako beka honen laguntza. Argibide gehiago nahi izan ezkero telefono honetara dei dezakezue: 291258 (Donostia).

Tangerrerako Instituto Espainolean barnetegia lortzeko esleipen eta berrikuntzarako laguntzak. Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzak egiten du dei. BBB, LH eta REM-eko ikasleak eska dezakete. Plazak balio duenaren zenbatekoa, joanetorrirako hiru bidai egiteko posibilitatea eta 197.000 pta da emaniko laguntza. Epea 1990.eko ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartekoa izango da.

Bolonian (Italia) "Real Colegio Mayor de España" edo "Colegio San Clemente de los españoles" delakoan ikasketak egiteko bekak. "Real Colegio Mayor" Patronatoak egiten du dei. Baina eskatzaileak gizonezko lizenziatuak izan behar dira. Nekazaritza, Matematika Zientziak, Fisika eta Natur Zientziak, Zuzenbide, Ekonomia eta Merkataritza, Farmazia, Filosofia eta Letrak, Ingenieritza, Medikuntza eta Kirugia, Kimika Industriala eta Albaitaritza. Bidaigastuak, mantenua, alojamendua eta bakoitzak izan ditzakeen gastuetarako hilabetero diru laguntza zehatza emango dira.

Unibertsitate irakaskuntzarako bekak eta laguntzak, 1990-91 ikasturterako. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzak egiten du dei. Fakultate edo Ikastetxe Unibertsitarioetako, Goi-Eskola Teknikoetako, Eskola Unibertsitarioetako ikasleak, Unibertsitaterako sarbide ikastaroa prestatzen ari diren 25 urtetik gorako pertsonak eska dezakete. 1990eko uztailetik urrira.

Baita ere prakiketarako kontratuak egongo dira. Enpresa Publiko Fundazioak egiten du dei. Goi eta erdi mailako tituludunak parte hartu dezakete, berauen helburua INI-ko enpresetan praktikak egitea da. Urtebetez izango da. Epea 1990eko irailetik urrira bitartean.

Bidai Merkeak

Bidaiak egiteko aukera ezin hobeak dituzue, Europa, eta Europatik kanpo. Baina sailkapen bat eginez, merkeenetarikoak aipatuko dizkizuet.

Litera duten autobusetan toki askotara joan daiteke: Turkia eta Capadocia-ra, 21 egunetan, 55.600 ptagatik, uztailak 10ean izango delarik irteera; Florentzia eta Venazia, 17.000 ptagatik, 7 egun eta irteera abuztuak 27an; Yugoslavia-Grezia, 43.000 pta, uztailak 7 irteera eta 18 eguneko iraupena; Suiza, 7 egunetan, 16.000 pta, irteera uztailak 24ean izango delarik; Erdieuropako kapitalak eta Berlin, 30.600, 11 egun, eta irteera uztailak 31an; Herri-Behereak eta Alemania, 11 egunetan, 28.300, abuztuak 20; Bikingoak eta Fiordoak, 58.900 pta, 20 egunetan, irteerak uztailak 10 eta 31ean; Inglaterra eta Eskozia, 10 egunetan, 27.000, irteera abuztuak 11an. Bidaia guzti hauetan litera daramaten autobusa, gia eta segurua sartzen da prezioaren barne. Izen-emateak data baino 20 egun baino lehenago egin beharko dira.

AEK-ko bidaiak aipatzera nihoakizue, nahiko "txoiloak" direlako: Turkia, 15 egun egazkinez eginiko bidaia, 42.000 pta, prezioaren barne egazkina eta hiru egunetako alojamendua eta gosaria sartzen direlarik, irteerak egun hauetan izango direlarik: uztailak 21, abuztuak 11, abuztuak 18an: Txekoslobakia eta Hungaria, 20 egunez baita Venezia bisitatuz, abuztuak 3an eta 24ean izango direlarik irteerak; eta azkenez, Peru, 20 egunetan, egazkinez, 125.000.

Konbokatoriak

Konbokatorien artean, ez da ahaztu behar, 1990eko Gazte Arteari buruzko Euskadiko lehen konbokatorian parte-hartzeko izen-ematearen epeak zabalik daudela. Modalitateak Pintura, Eskultura, Grabatua, eta Zeramika dira.

Oharra

Informazio gehiago nahi izan ezkero udaletxeko Gazteentzako Informazio Bulegora jo dezakezue. Eta gogoratu bertako kontsulta egunak asteartea eta osteguna direla, uztailean 11etatik 13'30etara egongo direla zuen nahiak betetzeko.

Animatu hadi opor alai eta zoriontsuak izatera bidaiatuz.

Ondo pasa!

Gazte Plataforma



Gazte Plataforma, Apirilean hasi zen martxan. Bertan Erakunde ezberdinetako eta inongo erakundeetan sarturik ez dauden gazteak gaude. Hasieratik hona kalean bi ekintza egin ditugu. Lehenengoan Untzagako arkupeetan panel batzuk egin genituen, gazteok ditugun arazoak salatuz. Hau da, sodaduzka, droga, langabezia, errepresioa, lokal falta... Bigarren ekintza Untzagako arkupeetan egin genuen, euria egiten baitzuen. Bertan gazteok daukagun kreatibitatea erreibindikatu genuen. Horretarako, musika talde batek zankudotan ibiltzeko aukera eduki zuen, tanke bat egin genuen edota txalaparta eta zeramika.
Momentu honetan geldiune batean aurkitzen gara. Bai azterketak direla eta bai udaran jendea desmadratu egiten delako. Egoera hau aprobetxatu, gazte guztiak proiektu honetan parte hartzera animatzen duguy, hemendik gauza nahiko majoak atera daitezkeelako.

Motorra edo gazte baten bizitza

Rikardo Sologaistuak "Eibar moto" sortu du



Gaur egun, kontsumo mundu baten bizi gara. Gizartean, eta konkretuki gazteen artean, kontsumismo horrekin oso loturik daude. Gazteak bizkortasunarekin ados daudenez, beraiek dira autobide eta autopistetatik motorrean ibiltzen direnak. Motorra, gaztearekin guztiz loturik dago. Gizarte honetako gazteak, modan jarri dute motorraren mundua, eta horregatik ikusi dezakegu edozein gaztek, bai hiri, eta bai herrietan, motor bat izateko posibilitatea duela. Motorrak, azkartasuna eta libertatea ematen dio gazteari eta horregatik da hain estimatua gazteen artean. RIKARDO SOLOGAISTUA da gazte hauetariko bat. Bera motorraren munduarekin oso loturik dago.

13-14 urterekin hasi zuen bere afizioa, bai mekanikaren munduan eta bai motorraren munduan. Bere lehenengo ikasketak egin ondoren (O.H.O.) eta B.B.B. ikasketak bukatu ondoren Eibarren, Maestria Industriala, Automozioaren arlotik, egin zuen Elgoibarren. Baita ere ikasketa profesionalak eta zenbait sari irabazi ditu. Konkretuki:

Ikasketa profesionalak, Injekzio elektroniko, eta baita ere argiztapen elektronikozko mailan, Madrid eta Lisboan.

Sariak: "Concurso Juventud Citroen", "I concurso HispanoLusitano Peninsular de mecánica" hauek orain dela 6 urte.

Bere lana bere bizia

Oraingoan, gazte honek, Motor garaje bat dauka Eibarren. Motor Garaje honetan negozio baten posibilitatea ikusten du. Zergatik motor garaje bat?. Ikusi dugunez, bere afizio eta gustoekin oso loturik dagoelako. baita ere Eibarren ez dagoelako motorrak bakarrik konpontzeko garajerik.

Lehenengo, garaje hori zabaltzeko sozietate bat egitea pentsatu zuen beste hiru lagunekin. Baina beraien erantzuna zentzu-gabekoa izan zen, oso gazteak direla e.a. Horregatik, ordutik ona garaje bat montatzea pentsatu zuen, baina berak bakarrik.

Berak dioenez Eibarri begira ezin da holako negozio bat zabaldu. Eibar 1.000 urtera dago Donostia eta Bilborekin konparatuz. Horregatik 125 zilindradako motorrak eta handiagoak konpontzeko, eibarri begira bakarrik ezin daiteke halako garajerik montatu, ez dagoelako merkaturik ez eta zelekziorik.

Horregatik, Rikardok ez bait du bakarrik eibarko bezeroak baizik eta Ermua, Zaldibar, Elgoibar, Mutriku, Azkoitiko bezeroak ditu eta orduan berak zona bat markatu du.

Garaje honek 3 urte t'erdi darama funtzionatzen. Konkretuki 1986ko Abenduaren 1ean zabaldu zen.

Beraren aspirazioak

Beraren aspirazioak argi daude, bizitza lasaiago bat izatea, garajearen kontuak ondo eramatea, eta garrantzitsuena ez, baina berari gehien gustatuko litzaiokeena lasterketa nazionaletan parte hartzea, eta ziur-aski datorren urtean lasterketa hoietan parte hartzeko prest dago.

Aurten, eta azkenengo urteetan denbora zoragarri bat galdu de laisterka egiteko, garajea dela eta, baina berak nahi duena da bere buruari demostratu noraino heldu daitekeen. Gainera motorraren mundua eta beraren inguruan dagoen guztiak mutil hau liluratzen du. Asko gustatzen zaio motoziklismo munduan dagoen saltsa eta horregatik edozertarako dago prest bera gustora egoteko eta baita ere jendea berarekin.

Proiektuak

Proiektu asko ditu berarekin baina horretarako diru asko behar da eta baita ere denbora eta trankilitatea izatea. Ezin zaio mekaniko handi bati diru kupoa eta denbora tope bat emon. Libre utzi behar zaio berari lana egiten eta baita denbora toperik jarri gabe.

Iaz gazte bat laisterka egitera eraman zuen. Berak prestatu zuen motorra. Esperientzia bezala eta pertsonalki asko gustatu zitzaion. Nahiz eta diferentziak egon beraien artean.

Rikardok bere lan egiteko posibilitateak, edo bere lanean non dagoen ikusi du, eta oso pozik dago.

Bere buruan ez zaizkio ideiak falta, eta ez gogoak egiteko ere, eta horretarako denbora eta trankilitatea behar dira. Orainarte proiektu asko atera zaizkio eta baita ere nahi izan dituen gauzak ere egin ditu baina horregatik ez zaio falta gogorik.

Baita ere berak kontutan hartzen du iazko motorren Arrate Igoera. Aurten ere egingo da igoera hau san Juanak ondoren, ziur aski uztailaren hasieran. Oso esperientzia polita izan zen iazkoan nahiko jende bildu zen lasterketa hori egiteko eta aurten ere espero da egitea.

Bukatzeko ikusten dugu nahiz eta pertsona askok pentsatu motorrak arriskutsuak direla, beste batzuentzat beraien bizitza da, gehienetan gazteena.

Kili Kili
GOSARIAK
PLATER KONBINATUAK
GOIZEKO 7RETATIK ZABALIK
IBARKURITZIZA Tfnoa 11 24 01

S.C.R. ARRATE
Goizeko 7,30etatik zabalik
Pintxo eta tragu xarmantak.
Etor hadi
"KULTURALERA"

Zagora Hizkuntzen liburudenda
C/ Arragueta tfno. 12 72 21
e i b a r

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK
ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tfnoa: 11 00 70

ANE MIREN
MODAK
ESTAZIÑO, 1 Tfnoa: 70 19 62

"DEL DEBA" ETXEAGENTZIA
Pisuak eta lokalak
Industri-Pabeiloiak
Untzaga, 8
Tfnoak: - 11 05 37
- 11 83 16

CASTAÑO
ILEAPAINDEGIA
•Ezkontzetarako orrazkerak
•Ilea ez jausteko tratamendua
•Depilazio elektrikoa
•Solariuma
Isasi 9-1º Tfnoa: 11 29 67



Ane Sarasketa: "Idaztea beste bide bat da; nire kezkak hartzen duten bidea"

Orain dela bi urte: O.H.O.ko 8. Mailan, "Narruzko Zezen" Lehiaketan 3. Saria. Titulua: "Antzerkiaren bidea". Antzerkia, ohizko ez den paralelismo bat dela medio, bide bateaz konparatuz. Iaz: B.B.B.ko 1. Mailan, "Eibarko Hiria" neska bati buruz. Hostoak botaz, edo sagarrak, edota ekaitz batekin erantzuten dio. Aurten: B.B.B.ko 2. Mailan, Giza eskubideari buruz 1. Saria. Titulua: "Zuekin nago". Aitzkorrira askatasunaren bila. Lau euskal-kirol, lau arazo argitzeko. Irabazitako Saria: Iparralderako bi egunetako bidaia, Institutoko bere gelako lagun guztiekin.

Nondik datorkizu idazteko zaletasun hori? Familiatik akaso?

Erantzuna: Ez, ez da etxean tradiziorik izan, nik dakidanez behintzat. Ahizpak, adibidez, margotzeari ekin dio eta aitari ere hori gustatzen zaio gehien. Nik berezkoa izan behar dut. Hori bai, beti animatu naute honetan jarraitzeko. Niretzat, egia esateko, hobby bat bezala da.

Eskolan izan al duzu laguntzarik? Idazten al da?

Idazterako orduan nahiko ongi idazten dela esango nuke; batez ere, ezagutzen ditudan neska pare bateaz ari naiz. Gertatzen dena da heurek ez dutela gogoko eta ez direla saiatzen. Baina batek oso ondo idazten du, benetan.

Orain arte ipuinak bakarrik ezagutzen zaizkizu. Egin duzu bestelakorik?

Egia esateko, ipuin bidetik abiatu naiz. Luzeena zortzi orritakoa izan da; azken honek, adibidez, lau orrialde ditu. Badago beste arazo bat: ikasten nabilen bitartean ez zaidala posible 25 orri edo gehiagoko idatzi bat burutzea. Noizbehinka saiatu naiz olerki bat edo beste egiten. Ezberdina da oso.

Eta irakurtzerako orduan?

Irakurtzea asko gustatzen zait. Baina hemen bai ikusten dudala halako desberdintasun bat, liburua erderaz edo euskaraz egotean datzana. Euskerazko olerkiak, batez ere, atsegin ditut; erderazkoak, aldiz, ez naute betetzen.

Zein idazlerekin geratuko zinateke?

Idazleak aukeratu baino lehen igual liburuak aipatuko nituzke. Mementu honetan, orain duela gutxi irakurritako "Babilonia" dut buruan. Atxaga gustatzen zait, Garate ere. Arantxa gutxiago irakurri dut. Erderaz, gehien bete nauena baliteke Miguel Delibesen " El Camino" izatea. Aukeratzeko orduan, astunegiak bakarrik baztertuko nituzke. Irakurtzen ditudan guztiak gero gordetzea gustatzen zait. Ez dakit zergatik, baina horrela da'.

Nola definituko zenuke zure estiloa?

Egiten dudana da nire kezkak kaleratu eta, horretarako, gonbaraketaz baliatzen naiz. Zuzenean jo beharrean egokiago deritzot bide honi. Badut istorio bat ezerezari zuzendua; beste bat letrak inurriekin konparatzen dituena. Beti, dena den, errealitatetik hurbil, hemengo gaiak erabiltzen bait ditut azken finean: ikusten dudana eta gertatzen zaidana pasatzen ditut paperera.

Kanporatze prozesu horrek denbora asko kentzen dizu edo jarraian sortzen zaizkizu ideiak?

Zeozer dut barnean eta norbaiti kontatzeko gogoak bultzatzen dit. Orduan bide hau erabakitzen dut, horrela nire kezkak azaleratzeko unean beste batekin "txapa" ez izateko. Batzutan ideiak aurretik daude landuak; horrelakoetan agudoago amaitzen duzu. Egun berean hasi eta amaitu egiten duzunarekin, pozago geratzen zara gehienetan.

Ba al duzu gerorako lan honetan segitzeko asmorik?

Aurrerantzean ere idazten jarraitzea espero dut. Lehen ere esan dizut hobbya dela niretzat. Oraindik ez dakit zer aukeratuko dudan ikasketa mailan, Kazetaritza edo Informatika. Baina, dena den, gustatuko litzaidake egunkarian edo irratian lan egitea, euskeraz hori bai eta kulturarekin zerikusirik duten gaiak tratatuz. Azken aldi honetan, Eibarko Irratia bisitatu eta egiten zuten lana ikusi nuenetik, gogo bizia dut behintzat dastatzeko.

Udaran zeozer berezirik prestatzeko asmorik?

Nahi nuke idaztea. Baina balitekeena da alperraldia nagusitzea edo inspirazioak oporrak hartzea. Ingurugiroa gero eta gehiago arduratzen nauen asuntoa da eta honen ildotik doan zeozertaz baliteke hitzegitea. Ziur behintzat, astia izango dudala.

...ETA KITTO!-k GOMENDATURIK

Caid Deceit-ren ondoren, Dissit 90`s

Gure lerroetan ohizkoa ez den aurkezpen bat egingo dizuegu hilabete honetan ere. Aurreko atalean, Euskal Herrian argitaratu gabe daukaten granadatar talde baten diska gomendatu bagenizuen, CORRE POLLOS-ena hain zuzen ere, atal honetan ez dizuegu ekarri bitxikeria geografiko bat, baizik bitxikeri diskografikoa, hau da, Lp bat izan beharrean maketa bat da.

Beraien izena DYSSIT da eta irundarrak dira. Ez duela asko sortutako talde bat, bi urte gutxi-gora-behera. Euskal Herriko Heavy mobidaren barnean sartuta zaudeten guztiok jakingo duzuen bezala, DISSIT, CAID DECEIT desagertutako talde irundarraren jarraipen bat bezala sortua izan da beraren partaide adierazgarrienak bertan jarraitzen duelarik (Karl, ahotsa eta bajua) nahiz eta beste musikoak aldatu izan.

DYSSIT 90`S izenburu komertzial honen barnean datorkigun musika, lau abestitan zehar banaturiko Heavy klasiko batetan oinarriturik dagoela kontura gaitezke, Caid Deceit-ek egiten zuenaren oso antzekoa. Noski, antzekotasun hau gehien bat abestiari berdina izatearen ondorio bat da, honek oso ahots espeziala duelako, eta ahotsa beti izaten bait da taldeari nortasun gehien ematen dion faktorea.


Soinu kalitate eta abestien maila hona lortu duen maketa hau J. Karl (ahotsa eta bajua); Emy (gitarra); Pat (gitarra) eta Fran-ek (beteria) osatzen dute; denak maila altuko musikoak, aipatzekoa delarik gitarren lana. Konposaturiko abestiak, GENERAL, PEQUEÑA FLOR (Jeta A, beraiek dioten bezala) eta VIENTOS DE LOCURA, REBELION (Jeta B) dira.

Grabaketak Donostiako IZ estudioan burutuak daude, Pepe Fernandez tekniko lanetan aritu delarik, emaitz garrantzitsu bat lortuz.

Maketa hau erostea nahi duen guztiak, Hilbehera, Bost edo Amenabar tabernetan lor dezake, honelako meketen banaketa ez bait da denda komertzialetan egiten. AH! eta azkar ibili zeren Amenabarrean egon ginen azkenengo aldian lau maketa bakarrik gelditzen ziren eta entzutea merezi duen lan bat dela pentsatzen dugu.

Ezker eskuin: 1.- Lardaskatu. 2.- Zerbaitetan jakitun direnak. 3.- Zein lekutan. Buru hitz elkarketan. 4.- Taldea. 5.- Joan aditzaren erroa. Fruitu mota. 6.- Arnasgabetu. borobila. Bat. 7.- Hozkada.

Goitik behera: 1.- Izkina. 2.- Gurtu. 3.- Usain txarra. Osmioa. 4.- Kanpo. Musu, haur-hizkeran. Potasioa. 5.- Euskal lurralde hau gabe, zer egingo zuen Benito Lertxundik?. 6.- Ohol. Bostehun. 7.- SESBko errepublika.



LIBURUAK

Izenburua: "**Amedo. El Estado contra ETA"**
Egilea: **Melchor Miralles-Ricardo Arques**
Arguitaletxea: **Plaza&Janes**
Orrialdeak: **818**



Liburu honetan, Miralles eta Arques, "Diario 16eko kazetariak, GAL (Grupos Antiterroristas de Liberaciòn) talde terroristaren inguruan burututako ikerkuntzak kontatzen dituzten. 1983-86ko urteetan, talde honek hogeitazazpi pertsona erahil zituen Iparraldean, baita beste asko zauritu ere. Bere objetiboa, Espainiatik ihes egindako ETAko kideak ziren.

Autoreen ikerketak, beste kazetari batzuen lanak, eta Espaina, Portugal eta Frantziako epaitegien sententziak batuz, GAL taldearen historia berreraikitzen da. Miralles eta Arquesen ustez, Espainaiko Barne ministraritzak martxan jarri zituen ekintza terrorista hauek, Amedo Subkomisarioa tarte zelarik, organitzaile gisa. Amedok, autoreen ustetan, merzenarioak kontratatzen zituen atentatuak burutzeko.

Estiloa guztiz periodistikoa da, eta agian, xehetasun gehiegi ematen dira, informazioa itoaz. Dena den, oso interresgarria suertatzen da bere irakurkera, alde ilun asko argitzen bait ditu. Polemika gogorra sortu du liburu honek bere barnean agertzen diren salaketaz ez bait dira txantxetan hartzekoak. Benetan errekomendagarria.

ZER IKUSI HURA IKASI

FITXA TEKNIKOA:

Fitxa teknikoa:
Kamera: Olympus OM-10
Objetiboa: 50 mm
Pelikula: Valca F22
Errebelatzaile negatiboa: Rodinal 1+50
Papera: Agfa-Record-Rapid 2a
Errebelatzaile positiboa: Neutol Wa


Bilboko porturantz abiatu nintzen Errenderiko lagun batekin argazkiak ateratzeko asmotan. Azkenean, Getxora iritsi ginen, itsas-bazterrera. Arratsaldeko 6ak ziren eta argi oso ona zegoen. Hango faroa gustatu eta argazki batzuk atera nizkion. Diafragma asko itxi nuen sakonera handiagoa lortzeko, eta horrela, untziak eta Faroa ondo geratu zitzaizkidan.



Egilea: Jose de Lera

PEDRO CELAYA: Gerria kalte haundixa izan zan guretako

Erlijiñuan izan doguz kanbixo ugari azkeneko urtietan. Pixkat kanbixuen norabidia zelakua izan dan jakitteko Eibarren Amañako Parrokixan abade dan Pedro Celayaz izan gara. Berak honek kanbixuok erakusten doskuz bere abade ta kristau ikuspuntutik. Erlijiñua oso inportantia izan leike ondo erabili ezkero.



Pedro edo don Pedro izenaz be ezautzen dogun gure eibartarra 1.922 garrenian jaixo zan Eibarko Errebal kalian. Frontoi zarreko eskoletan ta frallietan ikasittakua dogu bera. Arikitxanian (oiñ Unzeta ferreterixia daon lekuan) hasi zan biharrian ta orduantxe urten zeban gerriak. Pedrok diñosku: "gure zoritxarreko gerria". Orduan Bilbora juan zan errefujiau moduan. Baiña gero Bilbon frankistak sartu ziranian Eibarrera etorri zan barriro. Eibarren dana apurtuta euan.

Gero 37 garrenian Trust Eibarresian hasi zan biharrian. 39 garrenian berak diñon moduan: "dei bat edo..." entzun zeban eta seminarixora juan zan. Hamabi urteko ikasketak hamar urtetan eiñ zebezen bai berak ta bai berakin sartu zian Antonio San Pedro eta Maximo Egañak. 49 garrenian abade eiñ ta Arabako herritxo batean egon zan bi hillabetian, ta gero handik La Guardiara bialdu zeben. Gero handik Gasteizera juan zan ta han urtebetian prefekto modura egon ta gero Eibarrera etorri zan; 1.952tik dao Eibarren.

"Revista-Eibar"en zuzendarixa.

"1.952tik nao Eibarren. Eibarrera etorri ta hasi nitzan "Revista Eibar" ekin. Hasieran oja parrokiala izan zan. Ni neu izan nitzan hori ataratzen hasi zana. Oja parrokiala 3 urtian izan zan, ta gero ba...askoz gehixao zabaldu zan. Ta gero ba, jakiña, ni neu zelan naizen zuzendarixa ba...beti ikusten da apurtxo bat kristau ikuspegixa, ezta. Artikuluetan ta...sartu zan ba; Eibarko kulturia apurtxo bat jasotzeko ta...Eibarren onerako.

Honek rebista honek daroiaz ba...52garrenetik. Ta holan jarraitzen dogu hillian-hillian ataratzen. Gero prolemak be izaten dia ba: diru aldetik ta. Ze gaur holako gauza bat etaratzia nahiko garestixa da. Gero ba...laguntasunik ta eztakau, len aiuntamentuak emoteskun zeozer, baiña bigarren maillan edo sartu giñanetik eztou euki laguntzarik. Anunzio batzuk ta...bestela suskripziñuekin gabiz."

Zelan ikusten dozu fedian krisisa gaur egunian, zein da zure ikuspuntua horren ganian?

"Hamen industri gauzak ta baiño gehixao, Eliziari, kalte eiñ zetsana gure gerria izan zan, ezta: 36garreneko gerria. Hori proba gogorra izan zan Eliziandako. Gerrian hasikeran ta gertakeran Eleiziak ez zeban euki parterik, baiña gero gertau zan alderdi batekuek Eleizian kontra gogor eiñ zebela, ezta. Alderdi hori izan zan errepublikian alderdixa.

Hori pasau zan. Gerria guretzat, sinismenarentzat kaltegarrixa izan zan, Elizia be ba...zapaldua izan zan alderdi batetik ta gero Eliziak berak be alderdi batera gehixao jokatu zeban bestera baiño. Hori Euskal Herrixan ez zan izan hainbeste, hamen beste gauza bat izan zan. Hamen ba: abertzaliak ta...Jose Antonio Agirrek ta...heuren postura hartu eben ta Eliziari ez zetsen bapebe kalterik eiñ. Beste aldian bai, beste aldian Eliziari kalte gogorrak euki ebazan. Oiñ eh..frankistak heuren aldetik be gauza oker asko eiñ zebezen. Gure gerra honek ez zeban sortu bihar, baiña zoritxarrez sortu zan ta danok izan genduzan erruak. Ta gero ba...gerran be, bi alderdixetakuek eiñ zeben astokerixa asko."

"Hamen industri gauzak ta baiño gehixao, Eliziari, kalte eiñ zetsana gure gerria izan zan, ezta: 36garreneko gerria. Hori proba gogorra izan zan Eliziandako. Gerrian hasikeran ta gertakeran Eleiziak ez zeban euki parterik, baiña gero gertau zan alderdi batekuek Eleizian kontra gogor eiñ zebela, ezta. Alderdi hori izan zan errepublikian alderdixa.

- **Eibarrera etorri ta hasi nitzan "Revista Eibar"ekin. Hasieran oja parrokiala izan zan.**
- **Sasoi bat egon zan ba eleizara juatia ba...apurtxo bat atzerakoi lez ikusten zana**
- **Elizia edozeiñ alderdikin lotzen bada bere askatasuna galtzen dau.**
- **"Gaur apaiz gitxiao dao. Horrek ekarri dau Elizian sekularrak hartu deben indarra.**

Gaztien parktika erlijiosuak aldatu diala ikusten dogu egunero, zer pentsatzen dozu zuk horren gaiñian?

"Nik uste dot ba...zera: gauzak apurka-apurka aldatzen doiazela sasoi bat egon zan ba eleizara juatia ba...apurtxo bat atzerakoi lez ikusten zana, gero ikusten zan Eliza be aberatzekin euana. Gaur eztao holakorik. Gaur eztao len Franco-kin emon ziran moduko gauzarik."

Zelako etorkizuna ikusten dozu?

"Etorkizuna nik uste dot askoz hobiaua ikusten dala. Hamen Euskal Herrixan fediak asko galdu zeban pentsatu ebelako Elizia eta Estadua bat ziala. Ta horrek beti dakar kaltia .Elizia edozeiñ alderdikin lotzen bada bere askatasuna galtzen dau. Baiña oiñ Eliziak hor oso portura garbixa hartu dau: bakotsak askatasuna eukiko dau nahi dabena eitxeko ta nahi daben politikakua izateko. Oiñ, zera: danek errespetau biharko dabez gizasemien eskubidiak."

Apaiz faltiaren gañean zer diñozu?

"Gaur apaiz gitxiao dao. Horrek ekarri dau Elizian sekularrak hartu deben indarra. Len asko ta asko kristauak ofizialki zian, legiak hori esaten zebalako. Baiña hori gaur egunian ezta holan, kristau izatia bakoitzak eiñ bihar daben aukeria da. Oiñ gitxiao izango giñake baiña erresponsabilidade gehixao eukiko gendukez. Jentia hasiko da etortzen elizian jokabidia ikusten dabenian".

Careaga
Bitxi eta Erloju-denda
Arte-lanak eta grabatuak
Bidebarrieta, 10 Tfnoa: 11 80 45

MUÑOA
ZURE AUTOARENDAKO ORDEZKO PIEZAK
BIDEBARRIETA 14, 16.
TFNOA: 11 13 17
11 62 28

Jeronimo
Drogeria
Jostailu eta opari-artikuluak
Calbeton, 11 Tfnoa: 11 10 14

Larramendi
ETXERAKO ELEKTRATRESNAK
ESTAZIÑO, 6 T Tfnoa: 11 30 11

LA KUESTA
Bista-arazoak igarri eta tratatzeko zerbitzu optiko optometrista ezin hobeak
Calbeton, 23
Tfnoa 11 10 61
EIBAR

Morenatzea: Erretzen duen berotasuna





Gaur egun eguzkia hartzeko dagoen zaletasuna edo "moda" ez da orainarte historian zehar sekula eman. Erdi Aroan ozpina edaten omen zen azala txuri mantentzeko, eta XX. mendearen erdialderaino emakumeak udan guardasolekin ongi babesten ziren eguzkiaren izpietaz. Txuri egotea goi mailako gizartearen bereizgarri bat izan da mende honetararte, moreno zeuden bakarrak pobreak eta langileak zirelarik. Orain paperak guztiz aldatu dira, zer dela eta? moda izango ote? Honi buruz hitzegiteko eritzi desberdinak jasotzen ahalegindu gara, batzuk eguzkia hartzearen alde eta beste batzuk kontra posizionatuz.

Ezarritako estereotipoak jarraituz

Gai honi buruz hitzegiteko **Eneko Astigarraga** soziologoari bere eritzia eskatu diogu esanaz "gizarteak estereotipo batzuk markatzen ditu mendeetan zehar eta jendea estereotipo edo eredu horiek jarraitzen ahalegintzen da zelan edo halan. Gaur egun ez da bakarrik moreno egotea, baita argala egotea, jazkera edo orrazkera konkretu bat eramatea,... Arlo honetan komunikabideek (telebista, modako errebistak) zerikusi handia daukate, bertatik hartzen bait ditugu moldeak gero bakoitzaren ezaugarriei akoplatzeko. eta beste zenbait informazio alde batera uzten dira, hala nola ozonoko azalaren zuloa, edota azaleko kantzerra. Nola bukatuko dugun? ezin dezakegu jakin; beharbada problema honi buruz zenbat eta informazio gehiago eman jendeak beste kontzientzi bat hartuko luke, baina ezin da ezer zihurtatu, askotan modak informazioa baino influentzia askoz handiagoa izan dezake, tabakoarekin edo zenbait produkturekin gertatzen den antzera."

Eguzkiaren abantailak

Batzuk eguzkia hartzeko zaletasun haundia daukate, hau da **Idoia Irazola**ren kasua, aldizkari honetako kazetaria dena. "Eguzkia hartzea pilo bat gustatzen zait, morena egonda askoz dotoreago sentitzen naiz, nire buruarekin gustorago. Badakit larregi hartzea ez dela azalerako batere ona baina beno, zahartu denok zahartu behar gara, urte batzuk lehenago edo beranduago, bitartean hobeto sentitzen banaiz... Hala ere zuriak diren pertsonak askoz hobeto daude azal txuriarekin; hondartzara joan eta sekulako gorritasunekin etortzen dira, eta sufrimendua zertarako? pare bat egun geroago azal guztia zatika jausteko. Eguzkia poliki-poliki hartu behar da, kolore askoz politagoa lortzen da modu honetan, gainera eguzkiaren bitaminak aprobetxatzen dira. Moda den? ez, ez da moda bat, estetikoki politagoa dela besterik ez zait iruditzen."

400.000 kasu urtean azaleko kantzerraz

Azkenik, EDERGINTZA-ko ugazaba den **Elisak** eguzkia hartzearen ondorioak adierazi dizkigu esanaz "eguzkiaren energia oso garrantzitsua da gorputz osorako. Bere izpiek gorputzean daukagun 'D' bitamina aktibatzen dute eta hezurrentzat oso ona da. Melatonina hormona (oreka psikikoa edo adibidez logurea kontrolatzen duena) erregulatzeko ere oso baliogarria da. Hala ere badu bere alde txarra ere. Adibidez, Estatu Batuetan 400.000 kasu agertu ziren ihaz azaleko kantzerrarekin. Eguzkitan denbora luzeegian egon ezkero azala askoz lehenago zahartzen da, baita kataratak izateko arriskua ere haundiagoa da. Azkenengo urteotan gertatzen ari den fenomeno bitxi bat zera da: gorputzak eguzki izpien kontra defendatzeko duen mekanismoak pare bat aste irauten du erreakzioa egin arte; aldiz oporrak motzak izanik (adib. hamabost egunetakoak) jendeak ahal denik eta eguzki gehien hartu nahi du defentsa edo babes hau kontutan izan gabe eta ondorioz azalari kalte handiak sortaraziz. Konklusio bezala esango nuke pertsona bakoitza eguzkia hartzerakoan bere ezaleko kolorera mugatu behar dela: azal txuridunak babes handia behar dute, aldiz, azal ilunekoak ez dute ezer behar, eguzki pixka bat hartuz badaukate kolorea."

Zer eritzi daukazu beltzaran edo moreno jartzearen gainean?



1. Hassam Ben Aissa. 26 urte. Eskola tailerrean lanean.
"Asko gustatzen zait eguzkia, baina jendeak ez du kontutan hartzen bere azal mota. Txuriak direnak berehala erretzen dira, moreno jartzea besterik ez dutelako pentsatzen."




2. Idoia. 26 urte. Etxekoandrea.
"Ez zait gustatzen eguzkirik hartzea. Morena egotea bai, baina etzanda hainbeste denbora egoteko ez daukat pazientzìarik."



3. Antonio Fernandez. 18 urte. Langabezian.
"Eguzkia neurri batean hartu behar da. Badakigu gorputzerako oso ona dela, baina pasatu gabe, geroz eta azaleko kantzer gehiago bait dago."



4. Mª Cruz Arroyo. 16 urte. 1.FP
"Ondo iruditzen zait, baina arratsalde osoa pasatzen badut hondartzan aspertu egiten naiz. Gainera kolore pixka bat hartuta ongi dago, baina batzuk hartzen duten kolore beltz hori zatarra iruditzen zait, larregikoa."



5. Iñaki Etxeberria. 54 urte. Mekanikoa.
"Hondartzara gustora joaten naiz, ez moreno jartzera, gustatzen zaidalako bakarrik."



6. Mª Jesus Plaza. Etxekoandrea.
"Niri pertsonalki ez zait eguzkia hartzea bafere gustatzen. Gainera hondartzan ordu pila bat pasatzea jende askok egiten duen bezala txarra izan behar du derrigorrez."



7. Fernando Lete. 60 urte. Lanean.
"Eguzkia hartzea moreno jartzeagaitik ez zait gustatzen, mendira joatea nahiago dut. Mendirako lainotuta edo eguzkitsua egoteak desberdintasun haundia dauka, ni behintzat eguzkiak asko pozten nau."



8. Julia Eguren. 66 urte. Etxekoandrea.
"Larregi hartzea beharbada kaltegarria izan daiteke, baina bestela ez. Askotan joaten naiz Benidorm-era edo Alikantera eguzki bila."



9. Isabel Gallastegi eta Tomas Rodriguez. 28 eta 32 urte.
"Niri ez zait larregirik atsegin" - dio Tomasek- "baina egia esan jendea askoz dotoreago egoten da". Isabelek dioenez "niri gustatzen zait, baina kontuz ibili behar gara ozonoan dagoen zuloarekin, arriskutsua gerta daiteke."



10. Juanito Gisasola "Txoko". 72 urte.
""Hori gaztiendako da, hala ere orain zaharrak ere joaten dira Benidorm aldera, eta ondo eitxen dabe. Hondartzara ez naiz joaten, nahixao dot mendira pasiora joatia, askoz be naturalago ikusten dot."

UZTAILAKO AGENDA

KIROLA

MENDI IBILALDIAK

K. Deportiboko Mendizale Taldeak antolatuta:
- 1an: Larrau Mendatea - Burdinkurutzeta Mendatea
- 14an: Ibero - Lizarraga Mendatea

Udal Kirol Patronatoak antolaturik /UDA 90 EKITALDIA

06.26tik-07.9ra:
- TENISA. Jokatzen ikasi eta sakondu.

06.26tik 07.11ra:
- SASKIBALOIA - JUDO - INDOOR ESKALADA - TIROA (Arkuz) - PIRAGUISMOA - WINDSURF - BADMINGTON - KARATE

06.26tik - 07.27ra:
- RUGBI - GIMNASIA ERRITMIKOA - PILOTA - DEFENTSA PERTSONALA - INDOOR ESKALADA: (Dibujo eta Keramika) - PIRAGUISMOA - WINDSURF - ATLETISMOA - XAKEA - MAHAIKO TENISA - "IVEF" - HALTEROFILIA.

07.2tik-07.13ra:
BADMINTON

07.12tik - 07.27ra:
- AEROBIC - DANTZA - JAZZ

07.12tik - 07.27ra :
- SASKIBALOIA - JUDO - INDOOR ESKALADA - TIROA(Arkuz) - PIRAGUISMOA - WINDSURF - BADMINGTON - KARATE

ARGIBIDEAK: (11 32 40) POLIDIROLDEGIA

AMAÑANO JAIAK

13an: Etxapligoak. Kalejira. KULIXKA taldea. Nagusientzako afaria. Entzierro txikia. TEATROA:AMA BEGIRA ZAZU. Dantzaldia BRIES Taldearekin
14an: KIROLAK. Haurrentzako jolasak. Dantzari eta trikitrilariak. Aizkolariak. Jaialdia NERVION Taldearekin.
PIROTECNIA ZARAGOZANA. Sokamuturra...
15an: HERRI KIROLAK (Perurena, "Pato"). BERTSOLARIAK (Mañukorta, Peñagaricano, Mardaras.) Trikitrilariak, Txokolatada, giñola, "TITIRITERO"en Saioa. Umeentzako jolasak...

UDAL KULTURA SAILA

1an: San Pedro Jaiak. Urkizu inguruan.

ERAKUSKETAK: Udal Kultura Aretoan

10tik - 19ra: Udal Dibujo Eskola
21tik - 31ra: Arte Ederretako 1. Mailako Ikasleak. E.H.U.

AMAÑAKO KULTURA ARETOAN

7an: Trikitrilarien emanaldia
13an: Gaueko 10, 15an. TEATROA: AMA BEGIRA ZAZU

L.K.A. KUTXAko Kultur Gelan. ERAKUSKETA:

4tik - 15ra: "LATINAMERIKA eta HEGOAFRIKA". (Internazionalista Komitekoek antolatuka. Baita HITZALDI BAT ere.

NORK - ZER

Koordinatzailea:
Fernando Muniozguren.
Erredakzio taldea:
Ana Aizpurua.
Mireia Ugarteburu.
Idoia Irazola.
Fernando Muniozguren.
Amaia Muruamendiaraz.
Oskar Rekalde
Asier Arrieta
Arrate Zuloaga
Aitor Gorosabel
Jose Luis Gorostegi
Argazkilariak.
José Valderrey.
Jon Arregi
Maketazioa:
Jose Valderrey.
Komikia:
Ander Gisasola
Inprimaketa:
Gertu.